

ZAA

ZORROTZ MORROTZ

70. ZBKIA 2021eko UZTAILA

GUIOMAR ANDREU

FISIOTERAPEUTA, UNIBERTSITATE-GRADUA
LORTU DUEN LEHEN EUSKAL GOR-ITSUA

SADER-PROFERSA KANPORA EKIMENA

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com



kutxabank

ON LINE MAILE- GUA AIRE ZABA- LEAN



10.000€ edo gehiago:


ITN: %4,99

UTB*: %5,11

1.500€ edo gehiago:

ITN: %5,99

UTB*: %6,16



*ONLINE KONTSUMORAKO MAILEGUEN
KANPAINAREN ESKAINTZA:

- 10.000 EUROKO EDO GEHIAGOKO ZENBATEKO BATERAKO:
ITN: %4,99; UTB: %5,11. FRANTZIAKO AMORTIZAZIO-SISTEMA.
IREKITZE-KOMISIOA: %0. ADIBIDEA: 10.000 EUROKO MAILEGUA.
EPEA: 72 HILABETE. HILEKO KUOTAK: 161,00€ (AZKEN KUOTA
161,29€). INTERESAK: 1.592,29€. KOSTUA, GUZTIRA: 1.592,29€.
GUZTIRA ZORDUNDUTAKOA: 11.592,29€.

- 1.500 EUROKO EDO GEHIAGOKO ETA 9.999 EURO BITARTEKO
ZENBATEKO BATERAKO: ITN %5,99; UTB%6,16.
FRANTZIAKO AMORTIZAZIO-SISTEMA. IREKITZE-KOMISIOA: %0.
ADIBIDEA: 1.500 EUROKO MAILEGUA. EPEA: 24 HILABETE.
HILEKO KUOTAK: 66,47€ (AZKEN KUOTA 66,60€).
INTERESAK: 95,41€. KOSTUA, GUZTIRA: 95,41€.
GUZTIRA ZORDUNDUTAKOA: 1.595,41€.

ZENBATEKOAREN ARABERA HAINBAT INTERES TASA DAUDENEZ
GERO, UTB ALDATU EGITEN DA. ESKAINTZAZ BALIATZEKO,
BEZEROAK AURREZ ONARTUTAKO MAILEGUAREN ONURADUN GISA
SAILKATUTA EGON BEHAR DU ETA MAILEGUA 2021/09/30 BAINO
LEHEN FORMALIZATUTA EDUKI. ONLINE ESKA DAITEKEEN GEHIENEGO
ZENBATEKOA: 40.000€. EPEAK: 3 ETA 84 HILABETE ARTEAN.
MAILEGUA EMATEN DUEN FINANTZA-ERAKUNDEAK ONARTU ETA
ALDEKO AZTERKETA EGIN BEHAR DU. ESKAINTZA HAU KONTSUMORA
ZUZENDUTA DAGO ETA, BERAZ, KONTSUMORAKO EZ DIREN ESKAERAK
ETA BERFINANTZAKETAK KANPOAN GERATZEN DIRA.

Kezka handia Osakidetzak udan ezarriko dituen ordutegi eta zentro murrizketekin

Zailtasunak zailtasun, badirudi pandemiaren egoerak hobetu egiten duela. Espero dugu joera horrekin jarraitzea. Horri esker, Zorrotzako Taldeen Koordinakundeak Zorrotza Gozatu eta Bizi 2021 ospatzeko jarduera-programa interesgarri eta askotarikoa antolatzeke aukera izan du. Hala ere, ezin dugu ahaztu giza bizitzetan eragin duen kostu izugarria. Berriro ere norbait galdu dutenekiko gure oroitzapena eta elkartasuna.

Bestalde, maiatzean, Aldundiak ebazpen bat onartu zuen, Molinos Vascosen jabeei ahalik eta lasterren eraikinaren teilatua konpontzeko eskatu ziena. Beste batzuetan esan dugun bezala, elkarte gure ondarea mantentzeko lanean ari da, eta eraikin hau da haren elementurik esanguratsuenak. FEVEko lurperaketa, kutsadura, eta gure auzoari eragiten dioten askoz gai gehiago ere lantzen jarraitzen dugu.

Azkenik, aipatu behar da Auzo Elkarten Federazioarekin batera, kezka handia dugula Osakidetzak udan ezarriko dituen ordutegi-murrizketen eta zentro-murrizketen inguruan. Hala jakinarazi diegu arduradunei joan den ekainaren 7an egindako bileran. Ulertzen dugu pandemiak eragindako lan-karga eta osasun-langileen oporren beharra eragindako nekeagatik. Baina ezin dugu alde batera utzi konpontzen ari ez diren egiturazko arazoak daudela, eta halaxe adierazi diegu arduraduneei.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz



Zorrotzako kultur aldezakaria
70. zenbakia. 2021eko uztaila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa


AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: zmorrotz@gmail.com

 facebook.com/ZorrotzMorrotz

 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo Ramírez de la Piscina

LAGUNTZAILEAK:

- Manu Cobo
- Asier Urkiza



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra




Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



Aldundiak teilatua konpontzera behartu du Molinos Vascos eraikinaren jabea

Zorrotz Morrotz

Molinos Vascosen egoera “oso larria da eta premiazko esku-hartzea eskatzen du”. Hala zehazten dute Aldundiak eraikinaren egoera aztertzeko enkargatutako hiru ikerketa arkitektonikok. Horregatik, Aldundiak eraikinaren jabe den enpresa pribatuari sei hilabeteko epea eman dio bloke nagusiko teilatua konpontzera, eta errekerimendu ofizial hau, jabeen erantzunaren zain dago orain. Gaizka de Luis ahalduen jeltzalearen esanetan, eraikinaren titulartasun pribatua da jarduteko zailtasunik handiena, eta “azterketak egiteko ere baimena eskatu behar izan zaio enpresa jabeari”.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskara eta Kultura Batzordean aztertu zuten gaia joan den hilean, EH Bilduk hala eskatuta. Alderdi soberanistak 2020an egindako txostenak ikusi ahal izan ditu, eta “egiturak okerrera egin duela” modu argiz erakusten dutela adierazi du Endika Montes batzarkideak. EH Bilduk eraikina birgaitzeko eta balorean jartzeko eskatu du, eta deitoratu egin du industria ondarearen desagertzearen aurrean gobernuak ezer egin ez izana, eta erakundeek Industriaren Euskal Museoren proiektua ahaztuta dutela kritikatu du. Elkarrekin Podemosek ere gogorarazi du Aldundiak subsidiarioki jokatu behar duela eraikin babestu bat jabeek abandonatzen badute. Ana Berta Campo sozialista

zorrotzarrak eraikinaren eta zonalde osoaren balioa azpimarratu zuen, eta PPK, bere alde, “horrelako erreforma batek jabearentzat suposatzen dituen zailtasunak” kontuan hartzeko eskatu zuen.

Berandu dator

Gai hau Batzar Nagusietan aztertu baino egun gutxi batzuk lehenago, Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak (IOHLEE) Auzo Elkartearekin batera bisita gidatuak antolatu zituen portura. ZMko marxoko alean egindako elkarrizketa batean, Jabi Puertas IOHLEEko presidentek ohartarazi zuen *Molinos Vascosen* egoera Fiskaltzan salatzeak asmoa zutela Aldundiak bere erantzukizuna bete zezan. Orain emandako pausoari buruz “gutxienez hamar urteko atzerapenarekin” datorrela diote; izan ere “egurrezko egitura berreskuratzetik jada ez baitago”. Era berean, kexu dira ekintza subsidiariorik aurreikusten ez delako. Bestalde, Auzo Elkartearen ustez, albistea “ez da nahikoa”. Jada duela urte batzuk hainbat txosten teknikok eraikinean egin beharreko premiazko hainbat neurri aipatzen zituzten. Halaber, gogorarazi dute 2009an eraikina monumentu izendatu zutenetik, egun jada ez dagoen uralitazko teilatua bat jartzea, eta segurtasun hesia konpontzea eta indartzea baino ez da egin bertan, ekintza hauek guztiak Udalak bultzatuta.

Bidegorri berri batek Zorrotza eta Lutzana arteko tartea lotuko du egun dauden bidegorri-sareak konektatzeko

Zorrotz Morrotz

Zorrotza, Burtzeña eta Lutzana arteko bidegorri berri batek Bilboko eta Barakaldoko bizikleta-sareak lotuko ditu, eta era berean, bizikleta-konexioa osatuko du itsasadarraren ezkerrialde osoan. 2023an jarriko da martxan 1.766 metroko luzera izango duen azpiegitura berria.

Proiektuak Zorrotzako kiroledegia ren ondoan hasten den trazadura zehazten du, Clara Campoamor kalean Olabeaga-Zorrotza bidegorriarekin batzen dena, ondoren N-634 errepidearen plataformara sartzeko. Errepide horretan murriztu egiten da motordun ibilgailuentzako erreien kopurua: Barakaldoko noranzkoan errei bat jarriko da, eta Bilborako noranzkoan egungo bi erreiak gordeko dira.

Bizikleta-errea galtzadaren eskuinaldetik joango da Barakaldorantz, biribilgunetik igarotzean eta Cadagua ibaiaren gaineko zubia zeharkatzean ez dadin gatazkarik sortu trafikoaren eta txirindularien artean. Barakaldora iritsita, bidegorriak N-634 errepidearen plataforma utzi eta Zumalakarregi kaletik igaroko da; izan ere, kale horretan egungo bi erreie-tatik batera murriztuko da motordunen zirkulaziorako esparrua eta aparkaleku plazak eta oinezkoentzako espaloiek berdin jarraituko



dute. Bizikleta-bideak kale horretan zehar jarraituko du eta 500 metroko tarte batean galtzadaren ezkerrialdera aldatuko da, autobus-geltoki bat, garajeetarako sarbideak eta kale-gurutzeak oztopatzea saihesteko. Lutzana auzoan, Serraltan Portugaleteko Dartsenako bizikleta-bidearekin bat egingo du.

Azpiegitura berria bi udalen ekimenez gartua da eta Aldundiaren babes ekonomikoa du. Bilboko zatia egiteko 241.726 euroko aurrekontua eta hiru hilabeteko epea daude. Barakaldoko zatia 915.032 euroko aurrekontua eta zortzi hilabeteko epea du. Udalen ardura izango da lanak egitea eta bidegorria mantentzea eta kontserbatzea.



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfn. 94 441 61 46



**ESKAINNTZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOIA +
KRISTALAK** GOL-
GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean + 4,00 esferako eta
-2,00 ziliandroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarretaluxury
OPTICA ★

“Hockeyak asko suposatzen du niretzat eta Metropolitanoko taldea nire bihotzeko oso zati garrantzitsua da”



FILIP-DANIEL PETRIC

Jaiotokia: Pardubice (Txekiar Errepublikak)

Noiztik: 2014. urtetik.

Adina: 24 urte.

Lanbidea: Finantza ikaslea eta kirolaria.

Sorterritik milaka kilometro bidaiatu ostean ia duela 7 urte heldu zen Zorrotzara Filip Daniel gaztea. Erabaki ausarta bera bakarrik etorri zela. Auzoko Metropolitanoko hockey klubean aritzen da atezain.

Testua: Ibai Barrios

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Zorrotzara etortzea?

18 urte bete berri etorri nintzen eta hona etortzea erabakia baino, ondorio bat izan zen. Hockey pista Zorrotzako polikiroldegian dagoenez hurbilen zegoen bizitokia bilatu genuen.

Zure herria faltan duzu? Azkenaldian bertara joateko aukera izan duzu?

Faltan dudana bakarria familia da. Bilbo kulturalki oso aberatsa da, asko dauka eskaintzeko eta hemen pertsona bezala hazteko aukerak ugariak dira. Nire jaioterria ez da oso handia eta betidanik erakarri naute dinamika eta kultura handia duten lekuek. Nire herrian ezinezkoa zen eskaintza hauetaz baliatzea. Normalean hiru hilabetean behin itzultzen naiz baina oraingoan lan kontuak direla eta Gabonetan egon nintzen azken aldiz.

Nolakoa da zure egunerokotasuna?

Nire eguneroko bizitza hiru zatitan banatzen dut. Lehenik eta behin gauza garrantzitsuenak eta egiteke ditudanak izaten dira: ikasketak, lanak eta Metropolitanoko Hockey Klubarekin harremana duten gauzak prestatzea. Bigarren zatia normalean lanari lotuta egon ohi da eta hirugarrena hockey pistan entrenamenduak egitea.

Zaila suertatu zaizu hemengo bizimodura ohitzea?

Hasieratik harrapatu ninduen hemengo bizimoduak. Zaila suertatu zait bertako diferentzia pertsonalak ulertzea. Gizarte hotz eta itxi batetik nator eta aurkitu ditudan desberdintasunak ulertzea gaitza da.

Zer suposatzen du hockeyak zuretzat?

Nire bizitzako funtsezko zati bat da. Kirol kolektiboan erne mantenduz gero asko ikas daiteke eta nire kasuan pentsatutako helbu-

“ Bilbo nire etxea bezala sentitzen dut, sorterrria baino askoz ere gehiago. Hemendik mugitu ezkerro, sarritan itzultzeko arrazoi bat izatea gustatuko litzaidake ”



ruak lortzeko ikasketa-prozesuaren ardatz nagusiak aldagelan dauka abiapuntua. Hockey-ak aukera batzuk eman dizkit bidean, jende interesgarri asko ezagutu eta egunero energia ematen jarraitzen dit. Metropolitano taldearekin dudan harremana azpimarratzea gustatuko litzaidake, izan ere lehenengo momentutik gaur arte dirauen lotura oso emozionala da. Nazioartean aritu eta independizatzeke aukera lortu dut klubari esker. Beraz, kirol honek oso suposatzen du niretzat, eta Metropolitano taldea nire bihotzeko zati oso garrantzitsu bat da.

Zein da kirol honetan egin duzun ibilbidea?

Guztia Txekiar Errepublikan hasi zen, bertan izotz gaineko hockey-an aritzen nintzen. Duela gutxi aitak istorio bat kontatu zidan non txikia nintzelarik partidu bat ikustera joan ginen eta esan nion atezainak superheroiak ziruditela eta horrela izan da. Neguan izotz gainean eta udan *en linea* deiturikoan jokatzen nuen. Izotz gainean mailarik altuenetan eta nazio mailan kategoria txikietan aritu naiz. Baina nire etorkizuna aukeratzeko funtsezko adina nuelarik hona etortzeko eta profesional moduan aritzeko proposamena egin zidaten eta erabaki nuen salto egitea. Erabaki honi esker munduko leku asko ezagutzeko aukera izan dut. Iran-en bitzitakoa adibide argia da. Denboraren poderioz esperientzia hauek guztiak geroz eta gehiago baloratzen ditut.

Zeintzuk izan dira pandemiaren ondorioak kirol honi dagokionez?

Oro har zaplasteko handia hartu du. Kirolari oso onak aritzen dira maila honetan. Pertsonalki, Floridara txapelketa oso garrantzitsu bat jokatzeko gonbitea jaso nuen baina egoeragatik atzeratua izan da. Horrez gain, txapelketa mundiala ere iaiztik egiteke dago. Nazio mailan kolpea ez da hain latza izan kategoria guztietan txapelketak ospatzen jarraitu baita. Dena den, Euskal Herrian 14 urtetik beherakoek iaizko martxotik aurtengo otsailera arte jokatu gabe egon behar izan dute.


Hemendik urte batzuetara jokatzen ikusten duzu zeure burua?

Asko gustatuko litzaidake baina azkenaldian lesioek nire denbora asko mugatu dute. Hori dela eta egunero disfrutatzen saiatzen naiz horretan gehiegi pentsatu gabe.

Zure herrira itzultzeko asmoa duzu edo hemen geratu nahi duzu?

Ez daukat erantzun argirik egia esan. Testiunguruaren arabera betiere: Metropolitano taldearekin parte hartzen jarraituko dudan edo ez, lan- egoera edo eskaintzak... Dena den, hemen dudan loturari etsi nahi diot. Bilbo nire etxea bezala sentitzen dut, nire sorterrria baino askoz ere gehiago. Hemendik mugituz gero, hona sarritan itzultzeko arrazoi bat izatea gustatuko litzaidake.

Sader-Profersa, zergatik ez dira oraindik joan?



Lantegi berean daude Sader eta Profersa konpainiak. Hogeita hamar urte baino gehiago daramagu euren kiratsa arnasten eta beste hainbat bere irteera eskatzen. Momentu honetan Bilboko udalaren eskuetan dago giltza baina azken berrien arabera, fabrikaren lekualdatzeak gero eta urrunago dirudi. Zer gertatzen ari da?

Testua: Igor Gutiérrez | Argazkiak: Aitor Marín

Datu batzuk kokatzeko

Lantegi berean daude Sader (hondakinak deskontaminatzeko eta deuseztatzeko sozietate anonimoa) eta Profersa (ongarrien ekoizpenerako sozietate anonimoa). Azken hau Saderetik bereizi zen orain dela urte batzuk. Nork bere jardueran, guztira 80-bat langile inguru biltzen dituzte, gehienak gure auzokideak direlarik.

1986an sortu zen Sader eta urtero 150.000 tona hondakin tratatzen ditu, batik bat jatorri industrialekoak, bere webgunean irakurri daitekeenez. Jaso ditzakeen hondakinen zerrenda amaigabea da, 600dik gorakoa, tartean arrisksuak direnak ere. Sader eta Profersa Agaleus Medio Ambiente y Energía taldearen parte da, Bizkaiko eta Lugoko enpresa batzuek osaturikoa. 2019an Agaleus prentsan agertu zen, garbiketa industrialeko Quimycat enpresa erosi zuelako.

Kiratsa, kutsadura eta istripu arriskuak

Sader-Profersaren tximiniatik Zorrotzako etxebizitzetara 60 metro eskas daude. Zorrotzara ez ezik, sarritan kea Olabeaga, Erribera edo San Inaziora ere iristen da eta etengabeak dira auzotarren kezak: azkurea eztarrian, arnasteko zailtasunak, kiratsa... Gainera, Auzo Elkarteak sarritan salatu duenez, urteak dira airearen kalitatea neurtzeko Zorrotza eta San Inaziora estazioak zerbitzuz kanpo direla. Kasualitatea ote?

Halaber, kezka handia dago materia arrisksuekin lan egiten dutelako eta orain dela gutxi antzeko enpresetan istripuak suertatu direlako. Iaz, Lleidako Luqsa ongarrietako fabrikari eztanda bat suertatu zen, produktu kimiko batzuen erreazioaren ondoren. Zorionez, zauritu bat baino ez zen egon eta ez zuen ondorio larriagorik izan, hiribildutik urrun zegoelako. Iazkoa da Tarragona-



Urteak dira airearen kalitatea neurtzeko Zorrotza eta San Inazioko estazioak zerbitzuz kanpo direla

ko lqoxe petrokimikoaren eztanda ere, hiru hildako utzi zituena. Zer nolako ondorioak izango lituzke horrelako istripu batek gure auzoan gertatuko balitz?

Inoiz iristen ez den lekualdatzea

2014an, Sader Santurtziko portura joango zela zabaldu zen baina ezerezean geratu zen, portuan ez baitzegoen ur zikinen biltzailerik, handik gero araztegi bidaltzeko. Urtebete beranduago, Bilboko Udalak enpresen lekualdatzerako 2,7 milioi jartzeko hitza eman zuen, lursailak eraberritzeko Plan baten onarpenari baldintzatuz. Artean, Portu Agintaritza orubeen zati handi baten jabea zen eta hark ez zuen plana begi onez ikusten, Renfeko trenbidea lurperatzeko asmoa jasotzen baitzuen eta obra horretarako dirua jartzera behartuta egongo zelako. Beraz, aukera hori berehala zapuztu zen.

2019an, berriz, Udalak kaia bere osotasunean erosi zion Portu Agintaritzari, urteko soberakinetatik 13 M euro jarritz. Geroztik Bilboko udala da orubeen jabe bakarra, hortaz ez du inolako oztoporik Punta Zorrotza Plana bere kabuz onartzeko.

Zein da oztopoa?

Sader-Profersa 1995etik dago hiri-antolamendutik kanpo. Hala ezin da lantegian ez berritze ez handitze lanik gauzatu, mantenu lanak baino ez. Pentsa liteke, beraz, leku berri batean kokatzeko aukera balego, joango liratekeela.



Tarragonako lqoxe eta Lleidako Luqsa enpresetan egondako istripuak hurrenez hurren. Behean, Legutioko bizilagunek Sader-Profersa bertan kokatzearen kontra egindako mobilizazioa Gasteizen



Kezka handia dago materia arriskutsuekin lan egiten dutelako eta orain dela gutxi antzeko enpresetan istripuak suertatu direlako

lazgo udan, Profersa Legutioko Goain industrialdera mugitzeko asmoa zela zabaldu zen. Berehala, hango bizilagunak eta udala bera kontra agertu ziren, 5.000 sinaduratik gora bildu eta protesta egin zuten Gasteizen. Mugimendu hori berehala gelditu zen.

Saderren tokialdaketa, berriz, ez da hain erraza. Bere jarduera jada ez da bateragarria EAEko egungo ingurugiro araudiarekin, alegia, mugituz gero euskal erkidegotik kanpo beharko luke.

Begirada apur bat zabalduz, Sader-Profersaren jarduerak ekarpen adierazgarria egiten dio euskal industriari, zabortegira bota ezin daitezkeen hondakinen kudeaketaz ardurtzen baita -baita Zabalgarbik sorturiko errau-



Zorrotzaurreko Hirigintza Planaren infografia. Bertan, Sader Profersa desagertua ez bada ere, "postala" ez zikintzeko muntai fotografikoan izkututzen saiatzen da.

2019an Udalak kaia bere osotasunean erosi zion Portu Agintaritzari, hortaz ez du inolako oztoporik Punta Zorrotza Plana bere kabuz onartzeko

tsez ere. Eta Zaldibarren istripuak argi utzi zuenez, herri honetan badugu arazo handi bat hondakinekin. Nori interesatzen zaio Sader-Profersak gure artean jarraitzea? Horra hor egin beharreko galdera.

Azken orduko faboreak

Udalak portua erosi eta gutxira, kamioiak kaira sartzen hasi dira, Saderrek bertara

begira beste atari bat duelako. Gainera, Auzo Elkartek salatu duenez, udalak Arsenal bidetik igarotzen den bidegorria desbideratzeko asmoa du, kamioiei maniobrak errazteko.

Hori gutxi balitz, erreportaje hau idaztean, azken asteko Uriko Gobernu Batzordean proposamen berri bat zegoen adosteko. Hain zuzen, "Zorrotzako Muturrean dauden Udalaren zenbait pabiloi eta lursail erabiltzeko" Sader-Profersarekin alokairu-kontratua sinatzeari buruzkoa. Zertan ari da Bilboko Udala, enpresari bere jarduera gero eta gehiago errazten?

Zertan ari da Bilboko Udala, enpresari bere jarduera gero eta gehiago errazten?

Iragar zaitez



ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com

Restaurante

Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarquz)
Eguneko menua

Jai-Alai kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59



Mobilizazio berriak

laz, konfinamendua tarteko, balkoietako kazolada deitu zuen Taldeen Koordinakundeak, Sader-Profersaren gehiegizko kiratsa salatze-ko. Urtarrilean, berriz, Aldaketaldia herri ekimenaren baitan kontzentrazioa deitu zuten fabrikaren aurrean.

Protesten jarraipena eskasa izaten ari zela iritzita, jauzi kualitatibo baten beharra ikusi zuten. Hala, ekainean Sader-Profersaren lekualdatzea aldarrikatzeko banderatxoa kaleratu dute eta kontzentrazio berria deitu, ehun-bat lagunen parte hartzearekin. Banderatxoa Auzokan salgai dago dagoeneko eta irailari begira mobilizazio berriak iragarri dituzte.



Nori interesatzen zaio Sader-Profersak gure artean jarraitzea? Horra hor egin beharreko galdera.

Lápices
LIBURVDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgeresak eta sandwichak
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, kombinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

GUIOMAR ANDREU: Fisioterapia arduraduna egoitza batean, eta unibertsitate-gradua lortu duen lehen euskal gor-itsua.

“**Ez naiz garrantzitsua sentitzen. Hala ere, pozgarria litzateke nire eredia beste inoren ametsak gauzatzeko lagungarria izatea**”

Guiomar 29 urteko neska da, EHU-n fisioterapia gradua egin du eta kontratu mugagabea sinatu berri du Fisioterapia Saileko arduradun gisa Loiuako egoitza batean. Ezer apartekorik ez, entzumenari eta ikusmenari eragiten dion Usher sindromea gaixotasun hereditarioa duelako ez balitz. Guiomar gor jaio zen, eta ikusmen-arazoak izaten hasi zenean, gaixotasuna antzeman zioten 9 urterekin. Ahalegin handiz, eta oztopo asko gainditu ondoren, unibertsitate-gradua lortu duen lehen euskal gor-itsua da.



Hasteko, elkarriketarako izan ditugun zailtasunik azaldu behar ditugu: posta elektronikoz egin dugu, nik ez baitakit zeinu-mintzairan hitz egiten, eta ezin izan dugu interpreterik lortu. Oso zaila al zaizu interpretea lortzea?

Normalean, zeinu-mintzairaren interprete-zerbitzu gutxi daude, estamentu publikoetatik horretarako diru gutxi bideratzen delako. Horrek arazo dezente sortzen dizkit medikuarenera edo beste edozein zerbitzutara joateko, bai administrazioan, bai nire aisialdian.

Egongo da bere buruari galdetuko diona,.. eta nola egiten du mugikorrean edo ordenagailuan irakurri ahal izateko? Ba al duzu aplikazio berezirik?..

ONCEko kide naizenez, tifloteknologia bezalako tresnak eskura ditzaket (funtsak aldatu, zooma...).

Barkatu asmo oneko nire jakin-mina. Ohiko errutinak, gutariko gehienok inolako zailtasunik gabe gauzatzen ditugunak, hala nola autobusa hartzea, klasera edo lanera joatea, ... zuretzat ia oztopo lasterketa izan daitezkelakoan nago. Nola egiten duzu hori gainditzeko?

Normalean erreferentziak hartzen ditut, hala nola, erabili ohi ditudan eskailera-mailak zenbatzea edo autobusean bidaiatzen badut, eserlekuak zenbatzen ditut eta geltokiak Google Mapsekin kontrolatzen ditut.

Gaixotasuna antzeman zizutenean, nola jokatu zuen zure inguruko jendeak? Eta nola bizi izan zenuen zuk egoera?

Gaixotasuna jakinarazi zidatenean, oso zaila izan zen barneratzea eta horretaz jabetzea. Hasieran behera zatoz, baina denborarekin egoerara egokitzen ikasi dut eta gaixotasunarekin normaltasunez bizitzera ohitu naiz.

Horrek guztiak komunikatzeko modu berriak ikastea ekarri behar izan zuen. Zer izan zen zailena?

Hitz egiteko ez dut inolako arazorik. Hala ere, zeinu-mintzaira da hoberen menderatzen dudana hizkuntza. Arazoa da pertsona gehienek ez dutela zeinu-hizkuntza ezagutzen. Ikasi ahal izateko egokitzapenak bilatzea izan zen



“ Desgaitasunik dugun pertsonoi besteei baino gehiago kostatzen bazaigu ere, ezin dugu gure helburuekiko ilusioa galdu. Ahalegina eta esfortzua dira gure bidelagunik onenak ”

zailena. Kontuan hartu behar da, halaber, nire desgaitasunaren ondoriozko irisgarritasun arazoa.

Zailtasun horiek guztiak izan arren, fisioterapia ikasketak duela bi urte amaitu zintuen. Nola sartu zinen unibertsitatean? Argi zenuen karrera bat atera nahi zenuela eta zer ikasi nahi zenuen?

Unibertsiterako sarbidea beste edonorena bezalakoa izan zen. Fisioterapia gustatzen zitzaidan eta ez nuen zalantza handirik izan.



“ Nire lanean guztia gertatzen da normaltasunez. Baina, egun dudanera heldu aurretik, beste lan batzuetan baztertua izan naiz nire desgaitasunagatik, Diskriminatua sentitu naiz ”

Arazoak izan dituzu ikasketak egiteko? Eskolak, hezkuntza-sistema egokitu ta dau zure egoeran dauden pertsonentzat?

Arazo nagusia unibertsitatean zeinu-hizkuntzaren interpretearen etengabeko aldatetak izan ziren; izan ere, karrerako hitz teknikoen hiztegia ez da existitzen zeinu-hizkuntzan, eta interpretea aldatzen zidaten bakoitzean ezin zidaten informazio guztia itzuli... Gai jakin bat komunikatu nahi zenean, zeinu berriak asmatu behar genituen. Hamahiru interprete izan nituen graduan eta horrek arazoak sortu zizkidan. Egokitzapenak oso eskasak dira, eta baliabide gehiago jarri beharko lirateke inklusio hobea lortzeko.

Zure ikaskideei eta irakasleei dagokienez, nolako zen zurekiko harremana?

Hasieran harridura sortu zuen nire presentziak jende askorentzat, baina hasierako harridura hori gainditu ondoren, harremanak onak izan ziren.

“ Hezkuntza sisteman dauden egokitzapenak oso eskasak dira. Baliabide gehiago jarri beharko lirateke inklusioa lortzeko ”

Unibertsitate-gradua lortu duen lehen euskal gor-itsua zara. Etorkizunerako eredu zara zure egoeran dauden beste pertsonentzat. Harro egoteko modukoa, ezta?

Ez naiz bereziki garrantzitsu sentitzen. Pertsona normala naizela uste dut, baina nire kasua beste pertsona batzuen ametsak gauzatzeko lagungarria bada, pozgarria litzateke.

Eta gaur egun zein da zure egoera profesionala? Lanean ari zara, ezta?

Aldi baterako kontratupean hainbat zentrotan lan egin ondoren, orain kontratu mugagabea dut Loiuiko Gurena egoitzan, Fisioterapia Sailko arduradun gisa.

Lan-merkatura sartzean, arazoren bat izan duzu?

Bai, kasu batzuetan, nire egoeraren berri izatean bat-batean lanpostu horretan jada ez zegoela beharrik esan izan didate... eta handik gutxira beste profesionalen bat kontratatu dutela jakin...

Nire desgaitasunagatik baztertua izan naiz lan merkatura heldu naizenean, eta diskriminatua sentitu naiz.

Eta egungo pazienteekin, nolakoa da harremana?

Arazorik ez. Dena normal doa.

Eta, oro har, nolakoa da zure egunerokotasuna?

Nire adineko beste edonorenaren antzekoa. Nire familiarekin eta lagunekin ohiko harremanak ditut eta nire lanbidean aritzen naiz.

Gizarteak, besteok, gu... ikasi al dugu zuekin elkarbizitzeko?

Ez, gizarteak, oro har, ez ditu gure oztopoak eta mugak ezagutzen. Ez ikusiarena egiten du gurekiko.

Zorionez ematen du bukaera gero eta gertuago dagoela, baina egun pandemia-egoera oraindik ere oztopo handia da guztion bizitzan: maskara, distantzia soziala, ... Zu bezalako pertsonentzat, eskuak zuen komunikazio-tresna nagusietako bat denean... Nola bizi duzu pandemia egoera hau?

Bai, zuk esan bezala, gure kasuan are zailagoa izaten ari da, maskarak komunikazioa zailtzen baitigu.

Azkenik, gomendio edo mezuren bat behar bereziak dituzten gazteentzat?

Besteei baino gehiago kostatzen bazaigu ere, ezin dugu gure helburuekiko ilusioa galdu. Ahalegina eta esfortzua dira gure bidelagunik onenak.



LABURREAN

“Bidaiatzea maite dut, beste bizimoduak ezagutzeko”

Zure zaletasunak? Horietako bat nabarmendu behar baduzu?

Bidaiatzea, mendi-ibiliak egitea, irakurtzea, lagunekin egotea... Baina, batez ere, bidaiatzea beste bizimodu batzuk ezagutzeko.

Bereziki gustuko duzun leku bat?

Ilunabar politak ikusten diren edozein leku.

Orain arteko gogobetetze pertsonal nabarmena?

Lan egonkorra lortzea.

Zure bizitza edo ibilbidea markatu duen erreferenterik al duzu?

Aitaren iraunkortasuna, lanerako grina eta bizitzarekiko jarrera.

ehbildu

**egiteko
beste
modu bat**



ASKABIDE
kultur elkarte
ZORROTZA



Zorrotzako XXIV. ipuin lehiaketa

Zorrotzako Euskal Txokoak urtero ebatzaten duen ipuin lehiaketaren sariak banatu berri dira ekainaren 19an. Opari bana jaso edo jasoko dute parte hartzaile guztiek, baina horrez gain, lehiaketan aritutako idazle gazteen lanik nabarmenenak saritu ditu epaimahaikak. Guztura 100 ipuin jaso dira aurten.

Mila esker parte hartzaile guztiei eta hona hemen sarituen zerrenda:



12 urtetik beherakoak:

- **1. saria:** Ugaitz Martin Ortega.
(60 €ko kultur bonoa).
- **2. saria:** Ibai Suarez.
(30 €ko kultur bonoa).

DBH eta Batxirlegoko ikasleak:


- **1. saria:** Safaa Benzyane Fathi.
(100 €ko kultur bonoa).
- **2. saria:** Ruben Lucas Couge.
(40 €ko kultur bonoa).
- **Aipamena:** Erlantz Lekue Furundarena.
(AEK-ko motxila birziklatzeko materialekin eginda)



Malthusen ezinegona

Asel Luzarraga.

Elkar. 2021. 224 orrialde.




XXIII. mendean gaude. Mundu osoan milioi bat pertsona bizi dira, luxu eta ondasun guztiak eskura, inguruan beren zerbitzurako hainbat robot-gizaki dituztela, ez lanik, ez gaixotasunik, ez ardurarik gabe. Dena da lasaia eta gozagarria, izatez, baina badira lasai egon ezin direnak ere: horien artean Malthus, bizitza eroso horrekin deseroso, barruan borborka sumatzen duen botere-nahia nola ase ez dakiela.

Malthus apurka joan da deskubritzen mundu perfektu horren arrakalak eta gezurrak, baita historiaren martxa irauliko duen plan bat pentsatzen ere. Iritsi da plan hori gauzatzeko unea, urtetan landu duena. Gaugerero, Malthus ez da izango bere kideak bezalako ondobizi alfer bat, askoren arteko ale ordezkagarria, ezpada bere garaikideek gurtu eta geroak gogoratuko duen norbait: berezia, bizia eta boteretsua.



Zea Mays: "Adore"

(Autoekoizpena) 2021



Geroz eta ohikoagoa da taldeen artean diska luze bat atera beharrean apurka-apurka singelak konpartitzea. Momentu honetara arte Bilboko Errekalde auzoan kokaleku duen taldeak era tradizionalen ezagutarazten zuten bere

musika. Baina aurreko lana 2019aren amaieran argitaratu zutela kontuan hartuta ez zuten horren beharrik. Beraz, urte hasieran konposatu eta apirilean grabatu dute Adore izenarekin aurkezten diguten bi abestiz osaturiko singlea. Eta formula hau aurrerantzean ere erabiliko dutela ere esan dute, hau da abestiak konposatu ahala grabatu eta publikoari eskaini.

Ricky Falkner ekoizle eta musikari ezagunarekin lan egiteko ideia aspalditik zetorren eta aurten posiblea egitea lortu dute. Tarragonara joan dira amets hori gauzatzera eta emaitza polita da zinez. Gainera bideoklip ikusgarri batekin jantzi dute Adore lanari ize-na ematen dion abestia, non irudia eta mugimendua protagonista diren. *Zuk borroka hasi* abestian, ordea, lyric-video txukuna prestatu dute. Azala ere deigarria da oso, Fortun artistak egina. Musikan aritzeak adorea behar du eta Zea Mays-ek sobera dauka.

Patata tortilla Venecia

Osagaiak: Olio, patatak, arrautzak, gazta, urdaia, gazta eta gazta birrindua.

Hasteko, patatak zuritu eta txikitu. Bota olio asko zartagin handi batean. Olio bero dagoenean, bota patatak. Frijitu 15 minutuz. Jarraian, kendu olio eta gorde patatak plater batean. Arrautzak irabiatu eta gero, gehitu patatak eta gatz pixka bat. Bitartean, jarri olio pixka bat zartaginean eta berotu, bota nahasketaren erdia. Gainean jarri gazta eta urdai xerra batzuk, eta horren gainean nahasketaren beste erdia. Frijitu 3 minutuz. Ondoren, plater handi batekin buelta eman eta beste 3 minutuz utzi egiten. Bukatzeko, kendu sutatik eta plater baten gainean jarri eta moztu zerbitzatzeko.



Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,20 euro.



VENECIA TABERNA

Ordutegia:

Goizeko 6etatik gaueko 11k arte zabalik egunero, igandeetan izan ezik.

Abaro estrata, 10.

Telefonoa: 94 482 06 25

cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

LASTER

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

Sokateria lantegia edo jartziarena



1764.netik 1795. arte, frantsesen inbasiorarte, auzoko untziola gora ta gora egin eban indietarako korreountziengatik, aurrekoetan ikusi dogunez. Horregatik portuko lantegi guztiak (edo ta itsasontziek egitekoak...) handitu egin ziran eta barriek eraiki ebiezan, horren tartean Jartzia (ontziaren aparejo eta sokateri guztia) errege ola edo lantegia.


Manu Cobo

XIX. mendearen amaieran Ybarra eta cia enpresa egon zan erabiltzen lantegia eta 1923-1924 urteetan eraikin gune nagusia eraitsi zan. Eraikinaren egoaldean horma indartxu bat eraikita egoan, Euskal errotetako sarrera nagusiaren alboan, eta geratu zana. Erroten gunera lotu zan gero.

Eraikin zaharrak 400 bat metro luze eta 13 zabal zeukon gitxi gora behera. Bertan itsasontziatzako sokateria egiten zan, kalamu hiruten ta trentzatuten. Eraikinaren hormak arriekaz eraikita dira, gune luzenetan ondo indartutak eta sarretan edo hertzetan baino ez dabe arri landuekaz eraiki.

Gur egun hirurogetahamar metro ingurun geratzen dira antzinako eraikinetik eta zati bi ikusi ahal doguz, lehena hogetahamar metro ingurukoa, ipar aldetik hasita, hiru fatxada ikusi ahal dira bere teilatuaren egur egitura-gaz (nahiko ondo mantentzen dana..), bigarren zatian berogei bat metroetako, hiruko bi altuago berreraikita nabaritzen da, naz ta txertatuta egon horma zaharraren gainean.

Zutunik irauten dau ere errege untziolak iparraldean zarratuten ebian harresia. Francisco de Oleagaren 1787. neko planoan ikusi ahal danez, teilazka baten euskarria zan horma hau. Eta oraindik irauten





dabe ere, sarrera nagusia izango zenaren arkuaren sostenguak, seguru asko arku hau hiru erpin edo tontorrekaz eraikita egongo zala. Ure hartzeko (garrantzi handie sokak egiteko kalamuekaz) putzue edo iturrie erroten ta esandako iparraldeko harresia artean zegoen.

Gaur egun erortzeaz dagoen eraikina da, industri ondararen museoen lagunek eta auzoko talde batzuek borrokatzen dabiz portu inguruko gune hauek (beste askoren artean) zaintzen eta mantentzen.

Baie gune honek izango dauen (edo batzuk ikusten daberen) hirigintza-ekonomia aldaketek, behar dabe lur sail zabalak eta "estorbo" bakoak. Beraz gure ez dogune, izten dogu erortzen, eta behin erorita, ezertako balio ez dauenez... pena bat!!!!



Lantegia barrutik



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

Literatura eta bizitza

Beharbada huraxe dugu literaturaren eta oro har arte modernoaren gai nagusia, obraren eta bizitzaren arteko harremana, alegia. Ur handiak dira, ezin konta ahala auzi ebazten direlako kontraesan horretan. Fikzioa eta egia, esaterako. Oraindik ere kontu potoloagoa dugu berau, lehenbizi aipatutakoa har genezakeela bere azpi-ataltzat. Tira, etor gaitezen berriro lurrazalera. Zer egin, bizi edo irakurri? Biak batera? Posible ote da? Beti bezala, oraingoa ere zenbat buru, hainbat aburu. Hemingwayk, bizizale-tasunaren eredutzat har daitekeen alproja horrek, aurrena bizi behar zela zioen, gero idatzi ahal izateko. Gutxi ukatuko dute hori. Behin entzun nion Anjel Lertxundiri bizitzea ezinbesteko zela, baina bizitako horri bere bibliotekan ateratzen ziola zukua. Halere, bizitza literatur-laborategizat hartzea muturreko jarreretara eraman zaitzake. Martutene eleberriko Martinek, ogibidez eta pasioz idazlea denak, zera dio: “ez dago ezer bizitzaren erabilgarritasun literarioaren gainetik” (175). Literatura neurri berean salbazio eta kondena gisa. Jarrerak ez dakar harreman sanorik, agidanez.

Bestalde, egia da, bizitzen ari garen uneari ezin hobeto egokitzen zaizkion liburuak dartzokigu tarteka eskuartera. Orduan sortzen da halako lotura berezi bat, gure bizitzaren eta irakurtzen ari garen horren arteko hari ikusezin bat. Liburuari erreferentzia egiten dioten keinu eta ñabardurak ikusten ditugu eguneroko ibileretan. Inguratzen gaituenari erraz aurkitzen dizkiogu antzekotasunak leitutakoarekin. Horixe bera gertatu zait Natalia Ginzburgen Familiako lexikoa irakurri bitartean. 1963an argitaratu zuen liburua Ginzburgek, bere familiari buruzko nobela autobiografikoa. Izenburuak biltzen du eleberraren gakoetako bat, hots, familia batek ohi duen lexiko beregaina, esperientzia, esaera eta oroitzapenen bilduma pribatua. Familiako batek soilik harrapa dezakeen txiste hori, senide batek eguberritan urtero errepikatzen duen pasadizo xelebrea. Ezin-kusi, liskar eta berradiskidetzeak. Eta halako batean Ginzburgen hitzetatik norbere memoriaren ganbarara joaten zaio bati burua. Eta hasten da familiaren inguruan hausnartzten, hari ikusezin horri antz hartu nahian. Familia, neurri berean salbazio eta kondena. Literatura eta, oroz gain, bizitza bera bezala.

Asier Urkiza



Zaharrak berri Abaro eta Clara Campoamor kaleetako zoruan

Hainbatetan salatu da arazo hau, eta baita konpondu ere, baina argi dago orain arteko konponbideak ez direla behar bezalakoa izan, oso denbora gutxian harrotzen baita. Abaro estratako eta Clara Campoamorreko zoruek kotxeen joan-etorria jasan gabe jarraitzen dute. Beste behin.

Bilbo-Barakaldo bidegorria: hobetu daitekeen proposamena

Foru Aldundiak eta Bilboko eta Barakaldo-ko udalek Ezkarraldea eta Bilbo lotuko duen bidegorria aurkeztu dute. Lotura hori gure auzoan izango da. Bidegorria oso esperotakoa eta beharrezkoa da, Fray Juan kaletik eta Burtzeñako zubitik bizikletaz igarotzea saihesteko, baina urtetako atzerapenarekin dator.

Kostua, guztira, milioi bat euro pasatxo izango da. Hori dela eta, ez dugu ulertzen obra hau egiteko atzerapena; proiektu erraza da, oso laburra eta ez da oso garestia. Zergatik atzeratu da hainbeste bidegorriaren eraikuntza? Baina bidegorriaren tamainaz eta kostuaz haratago, gustatzen ez zaizkigun hainbat atal daude. Ibilbide erraza eta prezio baxua lehenetsi dira, beste gai batzuk kontuan hartu gabe, hala nola:

- Alzolako burdinazko zubia berreskuratzea.
- Hiltegiaren ondoan eraikitako bidegorri-zatia aprobetxatzea.
- Zorrotzako Puntaren eta Lutxanako industrialdearen hirigintza-hedapena aurreikustea, etorkizunean eremu horietan zerbitzua emango duen ibilbidea planifikatzeko.

Izan ere, errepideari itsatsitako bidegorri horrek ez du bide-segurtasuneko arriskurik

saihesten bidegurutzeetan, zebra-bideetan, garajeetako irteeretan eta abarretan. Gainera, bizikletak CO2 isurien eta kutsadura akustikoaren eremuan zirkulatzera behartzen ditu.

Azkenik, ikuspegi teknikitik egindako kritika bat. Zumalakarregi kaletik doan zatiak, Nuestra Señora del Rosario ikastetxearen eta Lutxanako Renfe geltokiaren artean, hiru erreialdaketa egiten ditu, txirriindularien segurtasuna arriskuan jarriko dutenak. Leku horretaraino bidegorria errepidearen eskuinaldean kokatzen da, baina ikastetxea igaro bezain laster ezkerrera pasatzen da (lehen aldaketa) Bizkaibuseko antzinako kotxetegiak igaro arte (bigarren aldaketa), non eskuinera itzultzen den, baina Lutxanako geltokia baino pixka bat lehenago berriz ere erreialdaketa bat egiten du (hirugarrena) Serraltara igotzeko. Hiru aldaketa, pasatzen uzteko seinaleekin arautuak, oso arriskutsuak izango direnak.

Azken batean, albiste ona da Barakaldo eta Bilbo arteko bidegorria eraikitzea, horrek Zorrotza eskualdeen arteko bizikleta-nodotzat kokatzen duelako, baina ibilbidea, segurtasuna eta ezaugarriak asko hobetu behar dira.

Espero dugu Aldundiak hobekuntza hauek agendan jasotzea, eta etorkizun hurbilean kontuan hartzea BIZIZ BIZI Hiri Txirriindularien Elkarte eta Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte (IOHLEE) bezalako eragileen proposamenak, eta bigarren fase batean bidegorriaren kalitatea hobetu ahal izatea.

Raúl Méndez, EH Bilduko batzarkidea



Vía gráfica
viagraficazorrotza@gmail.com
Disenúa



SAZ
OKINDEGIAK
Zorrotzako
labea
Zugandik gertu
Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO



Santer & BAR
Afariki ostirala
eta larunbatetan
Etxeo berezitasuna:
katxopoa.
Telefona: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA



Alain

Ezetz uste dut, baina neurri egokiekin umeentzako ekintzak eta helduentzako berbena egotea gustatuko litzaidake.

— / Naroa Peña
eta Iratze Pérez

Zorrotzako jaiak 2021:

Antolatzerik egongo da?
Nola ospatzea
gustatuko litzaiduke?




Luisa

Ez dut uste. Zerbait egitekotan, umeen jardueri lehenasuna emango nieke: puzgarriak, jokoak, antzerkiak...



Edurne

Aldi berean leku desberdinetan jarduerak eta kontzertuak egon daitezen gustatuko litzaidake, jendea pilatu ez dadin.



Jon Ander

Berez ezagutzen ditugun bezala ez dira ospatuko nire ustez. Baina ospatzekotan, betiko moduan izan beharko litzateke. Hau da, guztia edo ezer ez.



Olatz

Beti ere neurri aproposak hartuta, barbakoa edo herri bazkaria egon dadin gustatuko litzaidake, betiko moduko jaiak ez baititugu aurten izango.



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

AUTO ESKOLA
KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10



MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Bilbon euskaraz



Bilbao

▶ www.bilbaoeuskaraz.eus



iKasi
MiKasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANDA-ZORROZGOTI ILIHI

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAN JUAN ILIHI

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 428 01 36
☎ 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

B

Bilbao



WWW.BILBAOKULTURA.EUS

2021

Ekainak
Junio

28

Uztailak
Julio

3

